

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86

23. Zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

50 pta.

1988 Uztaila-Abuztua



Jose Luis ARBELAITZ UGARTE-
MENA, 40 urteko gizon gordina dator ale
honetan solaskide. Presentaziorik behar ez
duen horietakoa dugu: historia, artea, mu-
sika, erlijioa, tradizioak ezagutu eta maite
dituen pertsona. Baina batez ere, Hondarri-
bia ezagutu eta maite duen pertsona dugu
Jose Luis.

Nor bera baino aierone hobeagorik
gure herriko barne-muinetan sakontzeko!

...

- Madalen eguna duela 60 urte ospa-
tzen hasi omen zen. Jai honen historia egi-
ten digu Pello Olazabalek.
- Ikastolako haurrek baserri baserri
ibiltari berri jakinarriak ekarri dizkigute.
- Juan San Martinek deabruak noizpait
jaizkibelen euskaraz eta gaskoinez hitz
egin zuela kontatzen digu.
- Murru zati bat hondatu dela eta, ha-
resien historia egiten digu Sorkundek.
- Martin Ugaldet, kirol kronista ekolo-
gista bihurturik, Ondartza-ko belarrez idatzi
du oraingoan.

UDALDIA

Hondarribia uda partean beste herri bat
dugu: beste mortasun bat hartzen digu
eguzkia eta hondartzaren sorginkeria mi-
resgarriaz. Lehorreko herriak hustuko diren
garaian Hondarribia bikoiztu eta hirukoiztu
ere egingo zaigu ur gaziazen egarritz dato-
zen "baniestekin".

Uda, batzuentzat neke sasoi da. Gal-
degiezu bestela baserriarrei eta atunetara
doazen arrantzaleei. Beste askorentzat, be-
riz, atsedeen aldia da. Halakoan atsedena,
ordea, beste askoren lanbide bihurtzen da
hilaibete hauetan. Ostalariak eta dendariak,
adibidez, lanak itota eta lo gutxi eginda ibi-
liki zaizkigu. txingurriak udan bezala aleak
biltzen negua lasaixeago igarotzeko.

Udan garelarik hiru jai aipatu behar di-
tugu: San Pedro, Santiago eta Madalen
eguna. Igaroberria dugu lehenengoa.

Garai batean San Pedro bezperan baf-
reak tutu joki sartzen ziren portuko kaian,
segidan futeak, zakurren zangak eta
neska-mutil guziak korrika joaten ziren kai
aldera bafore haren sarrera ikustera. San
Pedro egunez elizako sakristian, gaur be-
zala. Aba Nagusia aukeratzen zen urtebe-
terako, eta gero, Santiago egunean egiten
zen aginte horren jabe.

San Pedro baino egun batzuk lehen
txeago, ordea, bai arropa garbitzeko ittu-
rietan, bai sagardolegiatan edo andreak
kartaka jolasten zuten karrika xokoetan gal-
dera bera entzuten zen: "Zein faki da kutxa
entregan?". Bai baitzeteliken garai hartako
kutxa eraman behar zuenak hiru doahin be-
rezi behar zituela: neska polita izan, airoa,
eta, batez ere, indartsua, halakoa pisua
baitzuen eraman beharreko kutxak. Beha-
rik orduko andreak buruan pisu larria era-
maten ohiuak zeudela. Ikusi behar zen ba-
serrietako andreak nolako jaski handiak
eramatzen zituzten. Arraketariak, berdin, eta
edozein neska koskorak ere kantina bete
arropa busti iturririk etxeraino. Gero, bizi-
modua aldatzarekin batera Kofradiak kut-
xa arinagoa egin behar izan zuen.

Santiago eguna baino hiru egun lehen-
ago, Madalen eguna dugu. Barruko orrial-
deetan duzu honen aipamen zehatza.

Jai giro honetan "Hondarribia" aldizka-
riak ere urtero bezala opor egingo du. Ho-
regatik ale hau uztaila-abuztuakoa duzu.
Hurrengoa, jaietako zenbaki berezia izango
dugu.

Lanean nahiz atsedenean, uda on!



KULTURA KONTSEILUA

Kultura Kontseilua sortu berria dugu Hondarrribian, bere estatutoak ekainaren 14ko Plenon onartu bait ziren. Hala ere, aspaldixotik ari zaigu lanean gogotik, lehenengo bilera martxoaren 22an izan bait zen. Bere zeregina, estatutoen lehen artikulua dioenez, herriko politika kulturala koordinatzea da.

Hasiera-hasieratik Hondarrribiko kultur elkarte eta taldeek hartu dute parte, bakoitzak bere berezitasunaren arabera. Bestalde, urteko sasoiak aginduta, arreta gehiena udako jardun eta ekintzetara bildu da, irail-leko Jaiei ere garrantzi berezia emanik.

Bilera hauen emaitza berri bat berehala argitaratuko den triptikoa izango da. Triptiko horretan uda osoan zehar Hondarrribian antolatuko diren jaialdi eta saioen berri emango da, egunak, orduak eta tokia zehaztuz. Informazio hau dohainik banatuko da Hondarrribiko eta Iruongo dendak, ostatu, jatetxe, banketxe eta bestelakoetan. Hemen bertan ere baduzu programa horren aurrerapena.

Ekintza asko Gipuzkoa Plazan antolatuko direnez gero, Kultura Kontseilua plaza estaltzea erabaki du eta asmoa aurrera eramateko harremanetan dugu zenbait enpresarekin. Plaza taldok estaliko omen da eta, euskari gisa, jarri eta kendu daitezkeen metalezko pilareak egongo omen dira. Sistema honek gainera herriko beste edozein tokitan erabiltzeko ere balio luke eta horrela ez legoke euria dela eta saiorik suspentzietako arriskurik.

Era berean, taulado berri baten egokitasuna aztertzen ari dira, montatzeko, kentzeko eramateko eta gordetzeko erosatzea. Bestalde, argi eta soinu ekipa baten beharra ere sumatzen da eta halako baten erosketa ere aipatu da.

Irailera salto eginik, Jailetako programa liburuskaren barnean orrialde batzuk sartuko dira eta bertan, publizitatearekin batean, Hondarrribiko kultura eta kirol elkarteek urte osoko ekintzen berri emango digute argazkiz eta hornituz.

Programa bera, urtero bezala, euskaraz eta erdaraz argitaratuko da eta argazkiekin batean herriko artistek egindako lanak etorkiriko dira.



Kultura Kontseilua oso-oso biltzen da eta ilusio handiz ari zaigu lanean herriko festak gero eta hobeto gerta daitezzen, izan ere, Hondarrribiaren edertasun paregabeak ez bait du gutxiago merezi!

Kontseilu Arduraduna

UZTAILA-ABUZTUKO JAIALDIK

UZTAILA

- 9 Txinga e: Trontza Txapelketa eta 18 urtez beharoko Aizkolarien Euskadiko Txapelketa. Polikiroldegian - Gaueko 10etan.
- 16 "IZAN ERE" taldearen kontzertua. Gipuzkoa Plazan - Gaueko 10,30etan.
- 21 Txistulari Bandaren kontzertua. Itsas-Etxean - Arratsaldeko 8etan.
- 23 "Septeto Donosti"ren akordeoi kontzertua. Ama Guadalupeko Ikastetxean. Arratsaldeko 8etan.
- 23 "Hondarrribiko Hiria" Musika Bandaren kontzertua. San Pedro Kalean. Gaueko 10,30etan.
- 24 "GEROA" Antzerki Taldearen emanaldia. Santiago Kalean - Gaueko 10etan.
- 25 Rock kontzertua. KORTATU eta BAP taldeak. Sorrotako Pilotalekuan. Gaueko 10,30etan.
- 30 "KAF SOLEIL" Afrikako Sortaldeko irletako musika kontzertua. Gipuzkoa Plazan - Gaueko 10,30etan.
- 30 "Hondarrribiko Hiria" Musika Bandaren kontzertua. San Pedro Kalean. Gaueko 10,30etan.
- 31 Nazioarteko Dantza Jaialdia. NEPAL eta POLONIA-ko dantza taldeak. Polikiroldegian - Gaueko 10,30etan.



ABUZTUA

- 6 "TRAPU ZAHARRA" Kale-antzerki taldearen emanaldia. San Pedro Kalean. Gaueko 8etatik 10etara.
- 6 ESKIFAIA Abesbatzaren Udako Kontzertu berezia. Gipuzkoa Plazan - Gaueko 10etan.
- 6 "Hondarrribiko Hiria" Musika Bandaren kontzertua. San Pedro Kalean. Gaueko 10,30etan.
- 7 Meakako Lagun Artearen Trikitilari eta Txistulariak. Goizean kaleaz kale ibili ondoren, San Pedro Kalean joko dute.
- 13 "Hondarrribiko Hiria" Musika Bandaren kontzertu berezia. Gipuzkoa Plazan - Gaueko 10,30etan.
- 15 Leongo "Teatro infantil-juvenil" delakoa. Gipuzkoa Plazan. Gaueko 10,30etan.
- 18 Traineruen Estropada. Bidasoa Ibaian. Arratsaldeko 8etan.
- 20 "Hondarrribiko Hiria" Musika Bandaren kontzertua. San Pedro Kalean. Gaueko 10,30etan.
- 20 eta 21 Bidasako Eskulangintza-Azoka. Arrantzaletako Auzoan eta eguraldi txarra egingo balu. Gipuzkoa Plazan.
- 27 Txontxongiloak eta Valladolideko antzerkia taldea. Gipuzkoa Plazan. Gaueko 10,30etan.
- 27 "Hondarrribiko Hiria" Musika Bandaren kontzertua. San Pedro Kalean. Gaueko 10,30etan.
- 28 "KILOMETROAK 88" Jaialdia.

MADALEN KARRIKA

Gaur egunean Hondarrirban, nork ez du ezagutzen Madalen Karrika?

Ez da haundia, ez da, portuarek esaten duten bezala, "modernua" ere, baina badu halako zerbait beste karrikaren aldean desberdina egiten duena. "Hor dago kroska". Historia asko gertatu dira hemen, beste lekutik bezala, baina karrika honetan, orain dela 200 urte bezala da bere inguru barrena.

Ikusi horko etxeak, horko inguruko bazterrak eta gauza guztiak berdintsuak dira. Gure aurrean dira hor, argazki honetan agertzen diren bezala, gure amonak heuren haurrakeri etxera etortzeko edo mandatu bat edo beste egiteko bakoitxi dei egiten zietenean bezala. Orain ere horrelaxe ibiltzen da karrika honetan. Hala ere, karrika honetara jendea gehien erakartzen duena urtero egiten den jaia izaten da, hau da, uzta-laren 22an Santa Maria Madalenaren oroimenez ospatzen den jaia.

60 bat urte dira hemen jai egiten hasi zirela. Orduko Florentxi, Xegunda, Bibiana, Alejandra eta beste batzuk hasi ziren karrika apaintzen eta "Andre Madalen" doinua jotzean denak, zahar eta gazte, dantza egiten. Gero Bienvenida andrea hasi zen umetatzako jolasak eta bestelako gauzak antolatzen, karrikan eta herri guztian poza zabalduz. Hori bai, gauean ez zen sekulan musika faltatu.

Gaur egunean ere jai hau aurrera doa. Urtero komiso txiki bat da antolatzailea eta karrikako jende gehienek laguntzen dute jai hau aurrera eramaten. Gora-behera asko izaten dira beren artean baina azkenean dena ondo ateratzen da, galdegina bestela. Poloñi, Lurdes eta horiekin. Heurek eman-gio dizute erantzuna.

Karrikan bertan zintzilik jartzen den koadroa Albizu margolariak egina da eta bere borondatez karrika eskainitakoa. Eta benetan oso koadroa polita da bikaina da, eta nolako mainarekin jartzen dituzten bertako emakumeek korona eta loreak bakoitxi bakoira zintzilik jartzeko!



Hortik aparte umeek ere oso ondo pasatzen dute, jai gehiena beraientzat antolatua bait da. Ikusgarria izaten da. Karrika txiki horretan joan den urtean ere 800 ume elkartu ziren eta 100 litro esnerekin beste hurrenbeste txokolate egin eta hartu zuten, beste 20 kg. galleta eta bizkotxorekin.


Zoragarria izaten da ere globoak botatzen direnean, bi edo hiru mila globo joaten bait dira airean beste argazki horretan agertzen den bezala. Hura poza ume eta haundiena!

Gero, gauean, musika doinuarekin, hurrak edo laurak arte dantzan aritzen dira denak urtero, antzinar bezala.

Ikusgarriena, ordea, karrika honetara hainbat eta hainbat kanpotar etortzea izaten da.

Aurten ere ikusiko dugu, noski, Doña Maria Magdalena loraturik zintzilik eta, Jainkoak nahi badu, jai onak pasatzea desiatzen diegu bertako eta kanpoko guztiei. Hala izan dadila.

Pello Olazabal



TXANDAKO BOTIKAK

Uztaila	4 - 10: Erasquin
	11 - 17: Mayi
	18 - 24: Iraola
	25 - 31: Erasquin
Abuztua	1 - 7: Mayi
	8 - 14: Iraola
	15 - 21: Erasquin
	22 - 28: Mayi
	29 - 4: Iraola

Mayi, Alm. Alonso Kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erasquin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

Uztaila	3: Martinez
	10: Arratibel
	17: Garmendia
	24: Martinez
	25: Arratibel
	31: Garmendia
Abuztua	7: Martinez
	14: Arratibel
	15: Garmendia
	21: Martinez
	28: Arratibel

Arratibel, Zubieta Kalean - 641975
Garmendia, Santiago Kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusian - 641212

EUSKARAZKO MEZAK


LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6etan Portuan (haurrentzat)
7.30etan Portuan

IGANDEETAN:

Goizeko 8.30etan Betherranen
9etan Amuten
9.30etan Guadalupen
11etan Portuan

OHARRAK



Gaztariak eta Biniatu (G. Montes Iturrioz)

Joan den ekainaren 6an Irungo Udaltzaren areto nagusian "Gaspar Montes Iturrioz: gizona, margolaria eta bere lana",

ARTEA

Uda garaian gure herrian erakustoki ugari irekitzen da eta aukera ezin hobeaz izaten dugu zenbait kuadro eta irudi eder ikusteko.

Jakin badakigu, inguruko herrietatik ere bat baino gehiago hurbiltzen dela Hondarribira areto hauek ikusteko asmoz.

Hauexek dira, besteak beste, aurtengo udan ikusi ahal izango ditugunak.

MEDIEVO

PERE JIMENEZ (keramika)
Uztailaren 1ean hasi eta 20 arte.
J. RAMON MENDIZABAL (esmalteak)
Uztailaren 22tik abuztuaren 10 arte.
LOLA PONS eta **CONCHA IBÁÑEZ**
(Brontzezko irudiak eta kuadroak).
Abuztuaren 12tik 31ra.

MOVELLAN

E. Albisu, **J. Gracenea**, **García Barrena**, **Carlos Gil**, **Totorica**, **Campos Goitia**, **Montes Iturrioz**.
Uztailaren 1ean hasi eta hilaren 16 arte.
Plana, **Totorica** eta **Campos Goitia** Abuztu osoan zehar.

ESKOLA ARTEKO JAIALDIA.

Euskara Kontseiluak antolatuta maiatzaren 29an Eskola arteko Jaialdia izan genuen. Antzerkia, bertsolaria, txontxongi-loak, eskulanak, e.a. Haizehotsen gidaritzapean. Gure gaztetxo eta haurrek artisten harrobia indartsu datorrela erakutsi zigtenen.

Zelina

"Zelina" dugu, gure artean bizi den Jexux Mari Mendizabalek, bere ikasleekin bitarteko esperientzia batetan oinarritutik nonbait, idatzi eta liburutu digun historiakoa.

Kontaketa, Aragoeko Huescan, Pueyo herrian kokaturik den ostatuetxean igarotako egunez mintzo zaigu, izan ere, Jexuxek O.H.O.ko 8. mailako bere zenbait ikasleren inguru zituen egun haietan izandakoak,

zein bertakoen ahoz entzundako fenomeno eta istorio harrigarriak isladatuko dizkigu, hala nola Viñazako kontearena, Zelina...n...

Lan honek 1987ko II Bilintz Literatur Sari irabazi zuen. Marrazkiak Inaki Arzak eginak dira eta oso egoki datozkio libururaren mamiari.

Zorionak Hondarribiko artista bici!

GASPAR MONTES ITURRIOZ

artista honi eskainitako lan monografikoa aurkeztu zen. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak argitaratu du.

Jendeaz gainezka ikusi genuen aretoa. Besteak beste, han ziren artista bera eta bere emazte Maria Iribarren, Irungo alkatea eta A.K.M.leko zuzendaria den Xabier Alkorta. Hara joan ginenok arretaz entzun genituen Xabier Aranburu kazetariak, lanaren egilea den Santiago Javier Zubiaur Carreño eta Santiago Aizarnak, Gasparren lana goraiatzuz, esandako hitzak. Aretoran, mar-

golariaren koadro bilduma ipinia zuten, erakusketa gisa.

Montes Iturrioz Irunen jaio zen 1911 urtean eta esan dezakegu inguruko margolari onenen artean aurkitzen dela. Edertasuna lortzeko bide bat baino gehiago erabili izai du, nagusiena, noski, paisaia, baina beste batzuk ere badira, urriagoak izan arren, inportanteak direnak: erretratua, biluzia, kos-tunbrismoa, bodegoia, historiako jeneroa eta erlijio-gaiak.

MENSU

Juan M. Navascues (oleoak)
Uztailaren 6an hasi eta 22 arte.
Mensu (marrazki eta oleoak)
Uztailak 23 / Abuztuak 23.
Diaz Fernandez (oleoak)
Abuztuaren 23tik irailaren 6 bitartean.

ARTE-EDER

Luis de Vera (oleoak)
Uztailaren bigarren hamabostaldian.
B. Cambronero (oleoak)
Abuztuaren lehen hamabostaldian.

J. Palacios (oleoak)

Abuztuaren bigarren hamabostaldian.

TTOPARA

Carlos Puente (keramika)
Uztailaren 2tik 20ra.
Angel Camporredondo (oleoak, akuarela eta monotipoak)
Uztailaren 22tik abuztuaren 12ra arte.
Valentin Manterola (oleoak)
Abuztuaren 13an hasi eta 31a bitartean.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Duela gutxi, ikastolako 6. mailako neska-mutlak, taldetan sakabanaturik (an batzu egitera abiatu ziren Hondarribiko auzotako baserri batzuetan agertuz, Baserri guztietako ateak zabalduz jaso zituzten. Gure galderak erantzuteko, egiten ari zirena utzirik, guregana hurbildu ziren baserriak, atsegin handiz erantzunez. Han honetako ondorio batzu hemen dituzue:

1. BERTSOAK ALBISTUR-ENEAN

1. Baserri politena da gure Albistur han inguruan dago makina bat egur zelaiak badaudela egon zaitez ziur etxearen zaindari badira bi txakur.
2. Baserrian bizitzea beti da polita inguru hura dago zuhaitzez josita behia jeisten dabilta hango ama ta aita eta sorok lantzen hasi dira baita.
3. Albistur-enean daude animala ugari hegai bat kendu diot hango oilarrari buztanarik heldu diot hango zezenari ostiko bat emanaz joan gara kantari.

Doinua: Pasaiako Plazatik.

2. ETA ALDERDI EDERREN

1. Gure baserri hau da eder ta polita Paskual Arrolarena ditzue jabea nekaturik dihoa lan asko eginda Kanpoan dituela oiloa ta txita.
2. Bukatu dugu enketara baserri honetan han utzi ditugu gizonak lanean eta gu hemen gaude denekin pakean eta bukatu ondoren jolastu nahian.

Doinua: Maritxu nora zoaz.



4. mailakoak hondartzan.



MINASEKA BASERRRIA

Minaseka, Akartegi auzoan kokaturik dagoen baserri txuri-urdin bat da. Oso ongo zaindunik dagoen etxe zahar xarmangarria da, bere ingurune politak gehiago edertzen duelarik: malda belarreztatutak, kainaberal orlegi eta handiak, zelaien artean sakabanaturik dauden zuhaitzak.... Larre zabal eta loreztatut bat inguruan dauka eta pinuak itzalpean hartzen dituen baserrria.

Txoko batetik hondartza, kaia eta iparraldeko zati txiki bat ikusten da. Zoragarria da. Han 300 urtetako haritz zahar eta izugarri bat dago, presa txiki baten gainean. Haritzetik oratuta kullunpio txiki bat dago, gertutik nabarmentzen dena.

Ikuluan ez daude abere ugari, baietan daudenak ez dira makalak! Era askotako untzi txuri-beltzak, bere lana ederki betetzen duten bi pare txakur zaunkari eta azkenik, hegan dabilten uso ederrak.

Baratza nahiko handia dute, barazki ugariekin: letxugak, azenarioak, porruak, ilarrak.... dena etxerako gelditzen delarik.

Senar-emaztea, elkarri lagunduz, beren bizia aurrera daramate, Minaseka are gehiago edertu nahian.

KONDONEAN IZAN GENUEN ELKARRIZKETA...

- Zein da zure izena? eta baserriarena?
- Claudio dut izena eta baserriak Kondonea.
- Non kokatzen da?
- Guadalupeko bidean.
- Maizterra al zara?
- Ez, Ez. Baserriaren jabea neu naiz.
- Noiztik bizi zara hemen?
- Jaio naizen ezkerotzik.
- Zer lurrak dituzu?
- 10 golde ditut denetara.
- Zein tresneria mota erabiltzen duzu?
- Traktorea eta lurra altxatzeko makina, batez ere.
- Probetxu ona ateratzen al duzu barazkietatik?
- Bai, eguraldiaren arabera.
- Zein labore mota duzu gehien bat?
- Tipula eta baratxuria.
- Barazkiak non saltzen dituzu?
- Herri bertan.
- Aziendari ba al duzu?
- Bai, behi-azienda, behiak ditut.
- Konten bizi al zara baserrian?
- Bai, noski.



Kale Nagusiko bere etxera hurbildu gara udako gau batean. Patxara txoko guztietan. Erlojuak nonnahi. Artea gure begien aurrean. Giro espeziala. Gure lehenbiziko galderarekin hasi da hizketan Jose Luis... pena da esandako guztia hemen jasotzerik ez izatea!



—H: Badakigu Guadalupekin erlazio kuttuna duzula oso txikitatikan...

—J.L.: Nere atxa ta ama ziren baserritarak. Ezkondu ta abian, bizi izanduz ziren Guadalupekin behera ikusten den Infernu izen gaineko Bortadaxiki izeneko baserrian. Ta gero 48an, baserri hura saltzera jarri zutelako gurasoak egin ziren Guadalupeko kapellauaren lurrak zaitzako hitza harturik, hango ganbaratan bi gela hartu eta beheko sukaldean erabiltzen dutela bizitzera pasa. Ta han ni jaio nintzan. Kapellauaren bizitzaren gaineko ganbarako gela batean. Ta orain beheko janetxe horrek duen sukaldean guren gurea.

Gure hango bizitza oso gogorra izanduz zen, zertik han bizitzea zen apaiz haren lurrak zaitzea, biñon harekin ez zen bizimodurik etortzen. Modu guztiz, lahar tartean ere usai oneko loreak etortzen dire, eta han ere hala zagon, laharra, biñon gu, nahiz jan-edanakin ondo asetak ez izan, gure gurasoen elkarren arteko hartu-eman hura, fedearen eta maitasunaren bero hori beti izanduz dugu, ta hortan haziak izanduz gero.

Nere buruari begiratu nik Guadalupean ezagutzen dut mundu bat, Guadalupeko Amabirjina ikusita, orduan zagon mantaukin jantzita. Ta horrek zuen giro bat, elizki-

JOSE LUIS ARBELAITZ

zunakin, ta urteko bederatziurten horrekin. Beti erlijiojo giro bat, ta neri piztu egin zian orduan erlijioaganaiko afizio hori edo barrukotasun hori.

Ta horrekin batean, gainearen diren bi kanpaua hoiek. Hoiek ikusten nituen eskuz egiten zituztela jo, ta ni ere lata fotoakin ta, punta jarrita hantxe ibiltzen nintzen korrika. Nik nuen mundu bat zoragarria.

HONDARRIKO HISTORIAGANAKO MAITASUNA

—H: Hondarriko historia beti hain presente duzularik, nola joaten da isuri hori aunditzen eta zabaltzen?

—J.L.: Hori pixkan-pixkan etortzen da, eta ikusten duzu momentu batean zure aurreko aldean, biñon nik ez dakit ze momentuan ta ze gertakizunekin martxan jarri den. Adibidez, Alardeak egiten dio mutikoari gauza asko, eta kanoiak ere bai. Ta horrekin ta foto zahar batzuekin etortzen da abian zuk egiten dituzun muralak. Ta gero etortzen da batek Burgosetik ekarri du libro bat, besteak ez dakit zer... Ta ikusten duzu Conde de Llobregaten liburu, hori irakurri genuen oso gaztetatik, ta ikasi genuen 7 de setiembre hortan zer gertatu zen, ta Sifio de Fuenterrabia hori zer zan. Batzuek entzatzat sifio esaten denean da lekua, eta ezta gertakizun bat. Ta gu hasi ginen sifio zer den ikasten, biñon hortarako motibazio batzuek izanduz ziren. Ta motibazio hoiek badire erlijioekin nahastuta Aingeruen emegina kantatzean, ta bestetik Alardeak berak zer esan nahi duen, ta kanoiak... ta hoiek denak egiten duzue borobildu. Ta gero, liburu titiki batekin eskuratzen bazera... ba, listo!

Gero behar bada, bada beste gertakizun bat: oso goiz guretzako —nik 11 urte nituen orduan, ta Javier Sagarazuk 12 izango zituen—, ta Castillean egin zuten erakusketak bat Paz de los Pirineos deitzen den gertakizun horrena. Hain harrigarria eta sakona izanduz zen guretzako, guk hortan ikusi genituen lehenengo aldiz grabatuak, biñon batez ere hemengo muga ikusi genuen, hemengo defentsak, harreria ez inportantia zuenak, Hondarriko muga-indarra. Gero, dibujua nola izanduz dugun, argazki zaharrak erabiltuz, edo grabatuak ziren tokietara, Ministerio del Ejércitoren Sección de Historia y Cartografía junda ibiltzen ginen beti dibujak egiten. Kopiai ateraz eskuz, ta tintakin koloretan jarri, baserriaren izenak hartu, ta Hondarriko ekarri haren plano ederrak egituko.

Ta batetik Aste Santua dela, bestetik Amabirjina eguneko Alardea dela, biñon urteak joan urteak etorri datu hoiekin bueltaka beti.

PARROKIAKO MUSEOA

—H: Ta nola izan zen garai bateko Parrokiako Museoa erakutsia? Nola sortu zen, zer egin zenuten?

—J.L.: Gu orduan sakristian ibiltzen ginen jaiotzak jartzen. Ni ez naiz ondo oirizten, biñon hori hasiera batean Bikariaren etxea oraindik kendu gabea zegoen, ta 1972, urtean zen ehun urte betetzea Joakin Olloren eginkizun batzuetaz: Guadalupeko kanpai-torrearen egina, Gurutz-bide harrizko hori egina. Gizon hau oso kondairazale, oso idatzizale izanduz zen, eta agertu nahi genuen.

Beste aldetik, gizon horrek berak jasotzak zituen orduan Hondarriko asko etortzen zen konsul baten puska batzuek. Konsul hau Espainiko konsula zen Siria eta Palestinan ibiltzen zena. Hemen utzi zituen pilosoten etxea izandutakoaren marmolezko kapitela bat, reliario bat Jesusen jaiotzan lurralde inguruko, Santo Sepulcro serralai bat ere bai, garai batekoa.

Ta puska hoiekin nahi genuen zerbait erakutsi arazi, eta sakristia txikia esaten dioten hura bere ornamentuak ta antolatua zegoen Fernando Artoia aita sakristauren garaian antolatutako bitrina batzuekin prestatu genuen. Bigarren sala ere ireki genuen eta beste gauzak erate hor edukitzeko modua egin genuen San Pedro egunakin erabiltzen diren Kofradiko orfebreri puska eder batzuek, XVI. gizaldiakoa, baita ere zilarrezko gurutza bat, abate berria aukeratzeko erabiltzen den mahai gainean jartzen den gurutza bat, reliario bat ere badute, San Pedro eta Santa Maria Madalenak... Beno, egin genuen zabaldu beste sala batekin museo hori, ta Museo Parroquial izena zabaldu zen hemen. Izanduz zituen lau edo bost urte egoki xamarrek, biñon ikusten genuen Parrokiaren barrutik ez zagola berotasun haundirik, eta asuntxo hoiek egiten diren bukatu 1975.ean.

TXISTULARIA

—H: Musika munduan ere ibiltzen zera. Garai batean Musika Bandoan ibilia zera, eta gaur egun Udai Txistulari taldean ere jotzen duzu...

—J.L.: Bai, Javierrek eta biek elkarrekin jotzen genuen. Bandoan ibiltzen ginen eta Javierrek txistua utzi zuenean, 69tik aurrera jotzen dut txistua.

—H: Honez gero pentsatua izango duzu zer den txistua zuretzat...

—J.L.: Nik sumatzen dutena txistua jotzerazkoan da euskeraz hitz egitean sumatzen den gauza bera. Musikaikin badu zerikusia, bañon gutxi. Musikaikin badu zerikusia zertik nolapait ere egin behar da neurrin jarri entenditzeko moduan. Txistua jo behar bada egin beharko da musikan sartu. Bañon txistua jotze hutsa neretzat da euskeraz hitz egitea bezala. Gauza bera sumatzen dut.

KANPAI-JOTZAILEA

— H: Noiz hasi zinen kanpanak jotzen? Esan duzu itzikatikan baduzula hortarako afizioa eta gogoa.

— J.L.: Parrokian ikasi nuen meza laguntzen, eta Guadalupeko kanpai-afizioa hura bildu zen, zertik txintxirria jo behar izaten zen, eta han goian hemengo kanpai ederrak entzuten ziren, eta neri egittien zian ahoa uraz bete, hangoak itikiagoak baitziren.

Hemen orduan misterioa haundia zen kanpai-torre horrekin, zertik sakristauak bakarrik zuen eskubidea hor sartzeko, muti-koskorarik ezin zuten horrara igo, ta orduan neretzako zen hura beste mundua. Eta kanpai-torre horretara igotzeko baime-na izaten nuen nik *angeru-ekzila* jo behar zenean. Angeru-ekzila monagiloak jotzeko baime-na bazuen.

Ta gero, pixkana pixkana ezagutu nuen zer zen *galerna*.

Galerna hori jotzen zan Maiatzako 3, egu-netik, Setienbreko 14.a bitarte. Bi eguneta-ko muga hortan eguneroko, goizeko bostetan egittien zen hori jo. Hori izaten zen udako ekaitzaren kontra.

— H: Eta *agonia*?

— J.L.: Bai, *agonia*, *hil-ekzila*.

Eta hileta nagusiak zirenean, jende haun-diantzat, aberatsakentzat, elizako gizonak, errege eta abar, egittien zen hori bera, bi-ñon bi kanpai haundiak jotzen zen. Jokal-di horri izena jarri zioten *mandoma*. Ta mandoma jotzen da setienbren 10ean.

Ta orain, neunik antolatutako gauza da, hil-tako guziakengunean, arratsaldean egittien den elizkizunak bitartean jotzen da hori, galdu gabe.

Galerna esan dut noiz jotzen zan, ta orain jotzen dugu Santa Ageda bezperan. Hemen beste ohitura bat erabat galdu zen, ta hura berriz jaso nahiean bezela, Santa Ageda bezperan, lehen esaten zuten bezela. Hondarriko sorgin guziak hemendik joteko, ta orduan egittien zituzten kanpanak jo. Bi-ñon nik nola ez dakiten ze jotzen zuten, orduan nik egittien dut galerna hori Santa Ageda bezperako.

Gero, hori bera jotzen da San Juan suak egittien diren ordu berean, jotzen dut hori hiru aldiz, galerna.

Eta kontu interesgarri hauei buruz beste batean berriro blagan ariituko gelinea agin-



duz agurtu genuen Jose Luis.

I. Etxebeste
Tx. Sagartzazu

DEABRUA JAIZKIBILEN GASKOINEZ ETA EUSKARAZ MINTZATU ZENEKOA

Behin baino gehiagotan entzuna dugu, deabruak ikasi ezinezko hizkuntza zela gu-rea. Idatziz ere han-hemenka hala aurkitu genezake:

“On prétend que le diable, après avoir habité le pays de Labourd pendant sept années, n'avait pu réussir à apprendre que deux mots basques, *bai* "oui" et *ez* "non", et encore ajoute-t-on qu'il les oublia, en sortant de Bayonne, au milieu du pont Saint-Espirit". Horrela zion Julien Vinson-ek **Le Folk-Lore du Pays Basque** (1883) libu-ruko hitzaurrearen haseran.

Gauza bera aipatzen dute Rodney Gallop eta Philippe Veyrin idazleek beren libu-ruetan (1). Zapi urtez aritu zela deabrua euskara ikasi nahirik eta Baionatik alde-tzean, Santizpirituoko zubia igarotzeaz bat ahaztu zitzaizkiola ikasi zituen bi hitzak: “bai” eta “ez”.

R.M. Azkuek kontakizun hori aurkitu zuen Donibane-Garazin, **Euskalerria-ren Yaintza** delako obran bildurik dakarrenez (lehen liburukiaren 359-360. orrialdeetan).

Mito horrek euskarari ez dio onik egin. Piarres Lafitte zenak, adibidez, ez omen ze-kin euskaraz aipagizai zelarik, eta ikasteko asmonik ere ez. Irakasle zuten Jean Saint-Pierre-ek bultzarazi omen zuten, Euskal He-rian apaiz izango bazen euskara jakitea beharrezko zela agerrazteak. Lafittek ordea, zirkun egin nahirik ihardetsi omen zion: “Nola nahi duzu? Dientenaz, deabrua Euskal Herria etorri zen batez, “bai” eta “ez” bai-zaik ez zuen ikasi eta oraino, Santizpiritu-ko zubiaren beste aldera gabe biak nahasten zituen” (2).

Ez da harritzekoa, zeren Real Academia Española-ren **Diccionario de la Lengua Española**-k, oraindik orain ere, gure hiz-

kuntzaren bigarren esan nahitatzat, “Vas-cuence” hitzean: “lo que está tan confuso y obscuro que no se puede entender”, jar-zen bai du. Zentzugabea ez ezik, lotsaga-bea eta lotsagarria deritzagu. Hori irakurri-z, edonork esango luke gaztelera jakinaz gal-nerako hizkuntza guziak ulergarri direla, euskara ezik.

Gaur emen adierazi nahi duguna, zera da, deabruak ere euskaraz bazekiela. Be-raz, ez zuen izan inongo eragozpenik. Hala behar ere Pierre Lancre epailaritzat jarri zen kriminal harentzat, euskara, deabruen hiz-kuntza zenez gero. Hark uxatu zituen ake-larre zaleak, 1609. urtean, eta laster ziren hemen sorgin hots ugaritzeak. Bi urte ba-rru, Jaizkibel mendiko Santa Barbara ermi-taren inguruan, San Joan jailetan eman zu-ten ihiza eta han atxilotuak epaitegrira. Ake-larre hartan partaide zen ala ez, egia aitortu edo zigorra, beste aukerarik ez zuten sor-gintzat salatuak urkumendik libratu nahi bazuten.

Hondarriko Udal-agiritegian aurkitu zi-tuen Serapio Mujikak epaiketa hartako pa-perak (3) eta horietan agertzen denez, ake-larrean parte hartu zuen Isabel Garcia 13. urteko neskatokak, epailarien aurrean aitortu zuenez, hiru ardudan deabrua agertu zi-tzailela eta, meza-beltz hartan, zenbait se-moriariaren ondotik, deabrua gaskoinez mintzo zitzailela Donostia eta Pasaiakoiei, eta euskaraz Irun eta Hendaiakoiei.

Hara non deabrua euskaraz mintzo zen, bertan bildurik zeuden hendaia eta irundar guziak ulertzeko eran. Hala izanik, txukun erabili beharko zuen euskara gurea, Joan zen mendearen erdialdera fama edaturik zegoenez, Irun inguruetan egiten omen zen euskararik hobetena. Hala zion Luis de Usoz y Rio nafar protestanteak Jacob Grá-



berg de Hemsó jaunari Alemaniara igorri zion gutun hartan, 1842ko irailaren 14an, litzuetaren idazkeraz zenbait erntzi ematean: “Le acusan los guipuzcoanos de falta de pureza en el lenguaje, y de mezclar voces del vascuence francés, del vizcaino, y otros dialectos, y no usar sólo del vascuence puro que se habla en las cercanías de Irun” (4).

Esangabe doa, Hondarribian bertan, kalean bederen, gaskoina zela nagusi; gaur egun gaztelera bezalatsu. Eta, nagusi ja-railituko du, euskara baztertu arte, baldin euskaldunok gure mintzairaren erabilera bizkortzen ez badugu. Euskaldunari euska-raz, ikurtzat hartuz.

Juan San Martin


(1) R. Gallop, **A Book of the Basques** (1930); Ph. Veyrin, **Les Basques** (1947).

(2) X. Arbelbide, **Piarres Lafitte, bere bi-zia** (1986), 19. orrialdean.

(3) S. Múgica, “Los Gascones en Guipúz-coa”, **Homenaje a Carmelo de Echegar-ay** (1928). Hemen jasotzen dugunaren ai-pamena 11. orrialdean dator.

(4) L. de Usoz y Rio, **Antología** (1986) E. Cobo-ren sarrera eta hautaketaz argitaratua. Ikus 171. orrialdean.

HONDARRIBIKO HARRESIAK



Historia piska bat egingo dugu. Gerra plaza hau mugan dagoela gogoan harturik, probintziako zaharrena dela uste da, sarre-
ra defenditzeko egina.

Tradizioaren arabera godoen garaioa omen da.

Hala ere, badirudi murrugintza Gipuzkoa Gaztelan lotu ondoren hasiko zela.

Hondarribiak antzinako pribilegio baten-gatik, noiztik ez dakigula, 10.000 maravedi jasotzen omen zituen urtero harresietan gastatzeko. Pribilegio hau behin eta berriz eman zioten erregeek 1.374, 1.379, 1.412, 1.508 eta 1.564gn urteetan gutxienez.

Harresiak Jaizkibelgo harrobietako harri-
ezin ziren. Harri zabalak eta handiak zi-
ren, noski, geldiltzen direnak erakusten di-
gutenez.

1.476ko setioaren ondoren Errege Kato-
likoek konpontzeko agindu zuten. Defen-
tsako lanak bukatutakoan harmari bat jarri
zuten, erdibituri, alde batean bi ertzaren be-
ren lokarriekin zeudela eta bestean zazpi
gezien sorta sokaz lotuta, azpian "tanto
monta" iskribua zuelarik.

Frantsesek 1.521ean plaza hartu zute-
nean hondatuta geratu ziren harresiak, eta
ere hondatuagoak 1.524ean errekupe-
ratu zutenean. Carlos V-ak berehala konpontze-
ko agindu zuen, eta Erregina eta Leibako
baluarteak eta Madalenaren kuboa egiteko
hobeki defenditzeko.

Harresien hondamena handiagoa izan
zen 1.638ko setioan, etsaiek bi zulo egin
bait zituzten zaldiz igotzeko moduak, eta
beste oker batzuk ere bai.

Felipe IV-ak kalte horiek konpontzeko
agindu zuen, baita etxe partikularretan
egindakoak ere. Horretarako, irailaren 22ko
zelulaz ahalik azkarren lan horietarako
behar zen jendea eskaintzeko eskatu zion
probintziari. Lanok 1.696 urtean bukatu zi-
ren gutxi gora-behera, baina 1.719ko setio-
an berriro hondatu zituzten harresiak eta

Gobernuak berriz ere konpondu ondoko ur-
teetan.

1.794gn urtean frantsesek berriro hartu
zuten Hondarribia eta harresiak botatzen
hasi ziren. Horrela, Hendaia aldera dagoen
parte guztia eta Santa Mariaren Kuboa
puskatu zituzten, horretan Alemaniak eka-
mitako langile bereziak erabiltu. Mendebal-
dean zulo batzuk egin zituzten murrak
lehertarazteko, baina Basileako Bakea si-
natutakoan polbora kupelak atera zituzten.
Horixe daude egungo egunean ere harre-
sien oinarrietan egindako zulo haiek.

Errege, setio hartan etxeak galdtu zi-
tuzten jabeek harresietako hondakinak era-
biltzen utzi zien, etxeak berregin zitza-
ten.

1.830 urtean, jasotako aginduak bete-
zeko, dei egin zion Udalak hargini eta
bestelako langileei ahal zituzten ateak eta
ahoak itxeko, Diputazioari ere laguntza es-
katuta.

1.843an baimena eskatu zuen Hiririk
Portura. Marinara, zihon bideko sarrera

txikia botatzeko eta bertako harriak bide
konpontzen erabiltzeko.

1.846ko maiatzaren 17an Errege agindu
batek, besteak beste, aurreko gerra zibi-
lean egindako defentsako lan guztiak bo-
tatzeko eskatu zuen. Eta horrelaxe egin zen
harresiak berak ere tronera zeudeneraino
botata.

1.850eko lege batek baimena eman
zion Udalari berak bakarrik harresi haueta-
ko hondakinak herriko lanetan erabiltzeko,
Santa Mariaren atearen ondoko harlanduak
ateratzen uzten ziolarik. Urte bereko iraila-
ren 10ean Pedro Urizberea hondarribiarak
dioenez, behar zen baimenarekin Santa
Mariaren Kuboaren mendebaldean pilatua
zegoen harn asko atera omen zuten, bai
harlandua, bai manposteriakoa.

1.885ean Hiririk harresiak eta baluar-
teak kaleen pareraino botatzeko eskatu
zuen, harresibarruko kalea zabaldu eta pa-
sealeku bat egin ahal izateko, Santa Maria-
ren atetik hasi, pilotalekuaren gaineko mu-
rria eta Erreginaren baluartetik jarraituta
Madalenaren kuboraino.


1.915eko martxoaren 4ean harresia,
ateak eta Gaztelua Arte Monumento izen-
datu zituzten.

Historia labur honetan zehar ageri de-
nez 1.794etik aurrera Santa Mariaren ku-
boa eta ondoko murrak oso eggera txar-
rean geratu ziren frantsesen leherketak eta
baimenez atera ziren harriak zirela eta.
1.960gn urtearen inguruan lur jauzi batek
80 bat koneju hil zituen, Antonio Zaldua
Guadalupe tabernaren jabearenak zirenak.

Aurtien, ekainaren 23an arteziak agertu
ziren murrari, Etxenagusien irudaren
ondoa. Dirudienez eskabadora bat antua
zen toki horren azpiko zakarrak garbitzen.

Udalak, okerrik gerta ez dadin, mugitua
zegoen zatia bota arazi du eta berehala
Eusko Jaurlaritzako Arte Ondareko ardura-
dunei gertatuaren berri eman die egokiena
erabaki dezaten.

Sorkunde



BELAR-ONTZEA EDO IDORTZEA

Abere zale guztiak bat datoz ondorengo honetan: aberreak edo azindak elizatzeko erarik merkeena eta errezena larreratzeko dela, baina hala ere, negua igarotzeko ondo etortzen dela belar idorra etxean edukitzean ere bai, bestela erosi egin behar baita, eta oso jakina, hiri kosta egiten da. Askotan oso zaila da eta inoiz ezinezkoa ere bai, gure artean, behar bezelako belar ondo etxeratzeko, jakinik urte sasoi hontan beste lan franko ere batera etorri ohi zaizkugula gure baserrietan eta eguraldiak ere gutxi laguntzen duela ikusirik. Eta horrela, ondorioak ezagunak zaizkigu: hemen bildutako belar idoretatik erdiak baino gehiago balio gutxiak dira, zeren eta berandu ebakitzen badira (eta askotan hori gertatzen da) zizkin-gai (zelulosa) gehiegi izaten bait dute.

NOLA IDORTU

Belarra azkarrago igartzeko, eta hori nahi izaten da, ebakitzeko uneak zer esan

nahi handia dauka. Behin moztu ondoren "antolaketa" berezi bat egin behar dela diote teknikoei, alegia, kraskatu eta urratu egin behar dela belarra, zuztarrak hautsiaz, gisa hortan barruko urak lehenbaitlehen bota ditzan. Horretaz gainera, maiz astindu eta harrotu, hiru ordutik behin, esatebaterako, baina kontuz, bere hezetasuna 75-85tik %35era dagoen bitartea; hortik aurrera esan daiteke, belarra astintzeak kalte egiten diola edo behintzat kontu handiarekin itzuli behar dela, zeren eta bestela hostoak galdu egiten bait ditu, eta justuki hostoetan omen bait du proteina, minerala eta bitaminarik hoberena, hain zuzen. Horregatik, hostoak urritzen zaizkion belar idorriari elikagai-indarra ere ahuldu egiten zaio.

BEREZKOA EZ DEN BELAR-IDORTZEA

Orain dela 40ren bat urte hasi ziren Ipar-Ameriketara era hontako belar-idortzeak egiten, eta ondoren Europan zabildu zen. Lurralde hotz eta euritsuak berehala ohartu ziren modu berri honen alderdi onak zeintzu ziren.

Honetake egin ohi da: Belarraren gainetik zimitu-haizea igaroaraziz (behar denean

berotua), pixkanaka-pixkana, sobera daukan hezetasuna kenduz. Merkeago izatearren, lehenbiziko zimeldualdi bat hartu duen belarra besterik ez dira igartzen modu hontan. Belarrak duen uraren erditsua gaitzeko, nahikoa da ebakita egon bakar batean belardian idortzen uztea. Izan ere, ez bait da zaila belarraren hezetasunaren %80tik (ebakitzeraoan duenetik) %40-45 era jeitsiaraztea, egun batean eguzkitan utzi ezkerotzik nahikoa da. Ondoren, beraz hezetasunaren %25-30 kendu behar soil-soilik. Gehienetan, haize-zuloz homitutako solarirak izaten omen dira. Eta, mailakamailaka jartzen da belarra solarir horren gainean. Erdian, bentiladorea ipini behar da. Haizea zuloetatik sarraraziko duen bentiladorea, alegia.

Era hontan ondutako belarra askoz hobea izaten da; %15-20 handiagoa izaten du elikatze-indarra. Lastima ordea, oso garesti ateratzen dela, eta hemengo baserri txikiak ez duela konturik horrela belarra idortzeko. Hala ere, bide ona da eta, aurrera jo beharko litzatekeela uste dute.

J. Bereau

ARRANTZA

MAIATZA

Ez dagoenean ez dagoelako, dagoenean dagoelako, badugu beti arazoren bat. Legatzaren arrantzaz ari naiz. Gabonetan prezio hoberena egiten duenean, ez da inondik agertzen. Orain, aldi, arrantza onak egiten ari garenean prezioak beherakada handia izan dute. Arrazola zera izan daiteke. Ondarroako kaian legatz asko sartzen dela eta ondorioz aipa tu dugun salneurrien beheretzea. Hauek izan dira hil honetako kotizazioak.

Legatza		1.200/1.000	pezeta kiloko
Mediana		650/ 540	pezeta kiloko
Peskadilla		500/ 450	pezeta kiloko
Arrozela		1.500/1.100	pezeta kiloko

Guzti hauen artean ugarienak mediana eta peskadilla izan dira. Egunean 500/100 legatz sartzen da eta arrozela, berriz, 400/500 kiloko egunean. Arrainak kala guztiztan harapatu dituzte, baina beti bezala, gehien hartzeman den tokia Eskote kala izan da.

Antxoari dagokionez kostera bukatzeaz dago. Kanpaina, orohar txarra izan da eta emaitzak ez badira hain txarrak izan prezioei esker izan da.

EKAINA

Arrantzak oso eskasak hilaibete honetan, eta hala eta guztiz ere prezioak behietu egin dira, Mediterraneo aldean arrain asko harapatu bait dute. Atzo bertan, ekainak 16, Geronako Rosas kaian 200.000 kilo antxoa sartu zen, kiloko 35/40 ale izanik. Honenbestez eta lehen genionez prezioak jeitsi egin dira.

Bestalde, frantses patruilerrak bi arruntzi atxilotu zituen, sare hestuegiak erdi, erabiltzeagatik. Bata Bermeokoa zen, beste Laredokoa. Atxilotze hau gure arrantzaleen



aurreko mendekua izan delako susmoa dugu. Egun hortan bertan Bruxelesen, antxu arrantzaren frantsesek erabiltzen dituzten sare pelagikoaren debekua zela eta eztabaidan bait zebiltzan.

Argi dago sareek neurri jakin batzuk izan behar dituztela, baina, neurri horiekien benetan gure itsasoa eta arrantzaleak babestu nahi baldin badira, egia da baita ere neurri horiek bere etxean hartzen hasi beharko dituztela. Beraz, Hendaian hasi eta bere kosta guztian zehar beteazazi beharko lukete legea.

Eta orain, atunaren kanpainen jarriak ditugu denok gure itxaropenak. Hendaian eta donibaneko arrantzuntzi batzuk hasiak dira dagoeneko hegamotozetan. 1.000, 2.000 eta 3.000 kilotako arrantzak lortu dituztelarik, 800/900 pezeta kiloko lortuz. Gure untiak utzailaren haseran itengo dia eguraldiak lagundu ezkeri; ea, gutxienez joan den ur-

teko emaitzak izaten ditugun.

SAN PEDRO EGUNA

Egun handia izaten da hau Hondarribian, San Pedro arrantzaleen zaindaria bait da. Egun horretan kofradiako batzorde zuzendari berria izendatu da. Hauek izan dira aukeratuak:

Lehendakari Esteban Olaiola.

Lehendakariorde Horazio Cuevo eta José Luis Oporto.

Itsasoko alkate J. Migel Euiayen eta J. Jose Susperregi itsasuntzi handien ordezkari.

Pedro Iriazabal, Joaquín Lizarraga eta Jose Thomas legazketariaren izenean.

Santiago egunean, urtero bezala, eliz nagusiaren sakristian egingo dira izendatze horien jabe.

Andres Olaskoaga

ETXANIZ MAIXUA

Hainbat aldiz entzun izan ditut esker oneko aipamenak gizon hartaz eta uste dut gogorapen txiki bat zor diola Hondarribiko herriak. Etxaniz jaunaz ari naiz.

Portuko eskolako maixu izendatu zuten Primo de Riveraren dendoretan, programazio osoa erdara hutsaen egin behar zuelako aginduekin. Maixu gazte hura aurrean zeuzkan mutikoei begiratu eta era askotako laguntza beharretan zeudela konturatu zen berehala. Beste gauza askoren artean lerro luze bat iturri eta beste horrenbeste lababo jartu arazi zuten eskolan bertan. Gaur oso normalea idurtzen zaigu eskoletan gimnasia egitea, baina garai haietarako aurrearapen haundia zen eta hori ere egin arazten zuten. Oso erraz uzten zen eskola, bainak hark madatana bidaltzen zuten hutsigilearen etxera zergatik huts egin zuen jakitera. Bertako arazoak eta problemak irakasten zituen, herriaren bizitzatik hartuak, arrantza kontuak eta abar... Kondaira irakasteko, berdin: lehenbizi herriarena berarena, gero besteak. Eta hori dena bi hizkuntzak erabiltziaz.

Norbaitek, ordea, eskola hartan euskaraz hitz egiten zela salatu zion inspektore jaunari, debekatzeko eskatuz. Inspektoreak, ustekabean harrapatu nahian, ezertxo ere abisatu gabe, eskolan agertu zen, eta mutikoei galdetu zien: "El maestro os habla en vasco, verdad?". Eta denak batera: "no

señor", Maixu harriturik gelditu zen umeek nola defenditu zuten ikusita. Izan ere, nere izeze, umeek ederki jakiten dute zein dagoen beren alde...

Eskola hartako atea beti irekiak egoten ziren edonorentzat, eta handixe sartzen zen "Ipurdi aguazila" ehun kilo paseak bararekin zeramatzala, eta bastoia begiz joa zeukan mutil bihurri batengana zuzenduta, ardaska, farola edo kristalen bat puskatu zuena salatzaren zuten. Gizararajoak korrika ezin harrapatu izaten zituen, baina poliki eta ziur, hantxe, askolan, hartzen zituen guztiak. Maixuak, aldiz, erdian jartzen zuen mutil erruduna eta zin egin zituzten zaup puntuko irakurri arazten zizkion. Lehenbizi-kok honela zion: "Ez dut behinereko hondakoa, ez arbolarik, ez lorerik". Azkenekoak, berriz: "Ez diot besteri egingo neronentzat nahi nahi ez dudarik".

Beste behin, mutiko baten aita sartu zen eskolan oihuka, haserre bizian: "Santao nun dek pazta?". Goiherrikoa zen eta gogoan eduki behar dugu pezetza batekin kiloko ogi handi bat erosten zela. Mutiko gizarajoak: "Ohe azpian!", "Ohe azpian, e?". Hator honera! —jotzeko asmotan gerriko zabala askatzen zuela—, Beharrik maixua bion artean sartu zen berari uzteko esanez, berak zigortuko zuela. Noski egingo zuela, baina behar zen bezala.


Urte gutxitan aurrerapen handia egin zuen eta buru azkarrentzat bekak ere lortu zituen. Baina familien egoerak ez zuten la-

guntzen eta gazte-gazterik lanean hasi behar izaten zuten. Noizpait ere azkarrenteko baten lantokira joan eta bi besoak gurtzatuz esan omen zion: "Baina horretan hasi haiz?"

Maixu argi hura, langilea eta gogoz betea, gerra izugarri hark herbestearekin zuten eta hantxe hil zen gazte xamar.

Badakit nor baino nor gehiago den ed egin duena ere epaitzea oso zaila dela. Izan ere, norik ezagutuko eta neurtuko ditu gizonen barrengo txokak? Baina gubiernean, argi eta garbi ikusten diren egite onak aipamen txokoa eta herriaren esker ona merezi dute.

Lourdes Zubeldia



DEMOGRAFIA

JAIOZKAZ

MAIATZA

- 17an MIKEL Zubelzu Sese
Gurasoak: Franzisko eta Isabel
- 19an INAKI Loidi Pikabea
Gurasoak: Nikolas eta M.^a Milagros
- 22an ARITZ Azpiazu Odriozola
Gurasoak: Alejandro eta M.^a Luisa
- 28an MAIALEEN Aguirre Etxebeste
Gurasoak: Bizente eta Itziar
- 29an GORKA Jauregi Olazola
Gurasoak: Jesus M.^a eta Maria
- 29an UGAITZ Marquinez Errazkin
Gurasoak: Mario eta M.^a Asuntzion

EKAINA

- 1ean ANDER Ormazabal Alberdi
Gurasoak: Jose Ignacio eta Ana M.^a
- 2an BORJA Jorge Montes
Gurasoak: Jose eta Franziska
- 5ean BALENTIN Emazabel Zaragueta
Gurasoak: Juan-Markos eta Eulalia
- 8an LEIRE Ametzeta Alzaga
Gurasoak: Karlos M.^a eta M.^a Anjeles
- 11ean MARTA De La Red Guardado
Gurasoak: Luis-Jabier eta Mari Kar-men
- 13an ANTONIO-IBAI Garcia Aranzeta
Gurasoak: Antonio eta M.^a Ines
- 15ean NEREA Elduaien Fernandez
Gurasoak: Alejandro eta M.^a Begoña

- 15ean ESTIBALIZ De La Fuente Etxabe
Gurasoak: Fernando-Jose eta M.^a Aranzazu

- 25ean TELMO Irdioi Amunarriz
Gurasoak: Maximo-Manuel eta M.^a Guadalupe

- 30ean ELENA Wyssenbach Kanpandegi
Gurasoak: Karlos-Juan eta M.^a Pilar

UZTAILA

- 2an GOIZANE eta EGOITZ Ezeiza Ugarte
Gurasoak: Ramon eta Pilar

EZKONTZAK

MAIATZA

- 6an Jose Luis Etxepare Txapartegi, Irungoa eta M.^a Dolores Tello Azua, Hondarribikoa.
- 14an Juan Ramon Altuna Errazkin, Hondarribikoa eta Miren Edurne Zapirain Etxebeste, Errenterriakoa.
- 14an Jose Luis Arias Gonzalez, Irungoa eta M.^a Aranzazu De La Peña Hornes, Hondarribikoa.
- 28an Jose Manuel Azkue Lopez, Hondarribikoa eta M.^a Teresa Maillo Martin, Irungoa.
- 29an Jose Franzisko Errazkin Etxaide, Irungoa eta M.^a Aranzazu Larraza Anduaga, Hondarribikoa.

EKAINA

- 3an Felipe Diaz Etxeberria, Irungoa eta M.^a Guadalupe Oronoz Lizargarate, Hondarribikoa.

- 11ean Jose Ramon Amunarriz Yaza, Hondarribikoa eta M.^a Jose Martinez Behobide, Irungoa.

- 17an Rafael Errazkin Ezpinda, Hondarribikoa eta Ana Isabel Alvarez Garmendia, Hondarribikoa.

- 18an Migel Emazabel Angulo, Irungoa eta Aurea Peña Dominguez, Hondarribikoa.

- 21ean Antonio Arozena Zabaleta, Irungoa eta Irene Errazkin Ugarte, Hondarribikoa.

HERIOTZAK

EKAINA

- 8an Ambrosio Aristizabal Guadalupeko Ama 10
- 9an Jose Manuel Arrizabalaga Intxausti, 63 urtekoa
- 9an Amute Auzoa "Bakartxo" Etxea.
- 9an Kristina Etxeberria.
- 16an Josefa Aristimuño Larreta, 88 urtekoa
- Kosta Auzoa "Bidargi" Etxea.
- 18an M.^a Jesus Font Buey, 28 urtekoa
- Panpinot Kalea.
- 25ean Jose Ganuza Lopez de Luzuriaga, 64 urtekoa
- Mendelu Berra.
- 26an Juan Gonzalez Oiarbide, 64 urtekoa
- Bernat Etxepare.
- 30ean Felizitas Irdioi Kosta Auzokoa.

"ONDARTZA"KO BELARRA

Ez dakit irakurlea "Ondartza" futbol-zelaiko belarrekin gertatzen denaz oharatu den.

Ez da mirakulua, baina ia-ia.

Futbolaren denboraldi ofiziala amaitzen denean ditu zelai honek zauri larrienak agerian. Gerratearen ondoren herrietan geratzen direnen antzekoak. Odola eta arima aparte. Futbol-zelaietan han-hemenkako urraduraz gainera, eta batez ere, nabarmenak dira soilune nagusiak: atezainen bi lekuetan eta zelaia erdigunean. Jakina denez, batetik, atezainen urdurtasuna gehien bota-lakoez adierazten delako, eta baita golaren bila sortzen diren gatazka larrienak atabururen azpian eta atarian borrokatzen direlako ere; eta, bestalde, erdigunea, jokoa ari diren bi taldeen "no man's land"en antzeko zerbitu denez gero, bai alde bateko eta baita bestekoaren erasoak zelai erditi bultzatzen direlako.


Zeu futbol-zalea bazara, ikusi dituzu joko politak eta itsusiak; hutsa franko ere bai gol eder bat ikusi ahal izan duzun arte; etzun dituzu gainera arbitroaren txistu justuak, zure taldekoaren alde doazenak, eta aurka doazelako justuak ez direnak ere; egoera hauetan ez da mirakulu beltzez jantzia dabilen epilaerari hitz gordinak esaten entzutea. Edo norberak, usleka-bean!, honen ama gaisoa aipatzea ere..., nolabaitko legezko denez futbolearen.

Baina bada norbait, edo norbaitzu gutxi batzu, gertakizun hauen gainetik futbol-zelaiko belarraz biziki kezkatutik sufitzen daudenak ere!

Gutxienez bi badira neuk aipa dudana egiazko mirakuloren egileak.

Ez ditut ezagutzen, baina hor daude sufitzen.

Eta partidua amaitzen denean, poztuko dira hondamien garaipenaz, irabazten badute, eta minduko ditu porrotak, hala suertatzen bada, baina horrez gain "Ondartza" futbol-zelaia ordu t'erdian jazan dituen kalteak dituzte batez ere buruan, nola senda dezaketzen.



Eta etortzen zaie beraiei jokatzeko garaia!

Irabazi eta galdu diren puntuen memoria joan da; hauek eragindako minak eta poxak ere... Baina belazean gelditu denak arduratzen ditu zelaia erdigileak: zer hazi berrerein, zer sendagai berrin probatu...

Orain gutxi hasi da "Ondartza"ko arduradunentzat bere denboraldia. Isilekoa, publikorik gabekoa. Eta uste izango dute, behar bada, egiten ari diren ez dela inor

ohartzen. Baina ez da hala. Orain astebete erdiguneko zauriak sendatzeko eman zizkien kolorezko igurtzi batzu, bat gorria, balauneko urratuak sendatzeko ematen den merkromina antzeko zerbitu, eta bestea, karea beain zuria. Askok ikusi du belazea gozatzeko egin den sendadura horren ondorela albanbradaren bestaldetik.

Euria eta eguzkia dituzte horrelako lanak lagun, eta meteorologiko parteak arretaz entzuten imajinatu ditut sendagileak.

Eguzkiaren beroak eta eurien hezedurak mundua mundu denetik sortzen ari den biziak lagun, soiluneak apur bat orlegitu dira dagoeneko; orlegiak ez dira berdinak: irten berria den belartxo argiagoa da, eta bihamunerako berdintzeko bidean abiatu; orain, soiluneak eta urradurak orlegian nabardurak dira gizonaren arretak eta maisutasun lortutako mirariaren lekuko.

Bada oraindik arreta, kontu eta ardura honekin lan egiten duen pertsonik.

Ez dakit jendea fruitu honetaz merezi adina konturatzen den.

Neuk nire eskerrak eman nahi dizkiet hemendik.

Honez kanpo, Hondamirian badira beste ardura txalogarriak, San Markos parkean egin dena, esate baterako, eta beste... Ezin aipatu gabe utzi, badela halere Hondamiria ederrean arreta merezi duten beste lorategi eta parketxo abandonaturik, ur geldien lirdinga kiratsurik, norbaiten arduraren zai.

Badakigu aipatutako mirariak ez direla inon egunerokoak izaten.

Horregatik ekarri izan nahi dugu gaurkoa honera.


Martin Ugalde

HONDARTZAKO PLAIEROAK

Hondamirian bi hondartza ditugu futboleko: bata "Ondartza" izeneko belardi berdea eta bestea hondar alez osatutakoa. Azken honetan jokatzen diren partiduei "plaiero" esaten zaie. Plaieroetako XXVIII Kopa finala Lezoko Euskaldarrak eta Donostiako Ondartxo-ren artean jokatu zen eta lehenbizikoek, 3-2 irabazita, 88ko kopa bereganatu zuten. Kopa banaketa maiatzaren 29ko eguerdian izan zen San Pedro kalean txalo berdeen artean. Ondoren Hondarribia Kirol Taldeak, torneoaren antolatzailea bera, ardo tragoska bat eskaini zien futbolzaleei bere egoitzan.

Gogora dezagun ere Ligako txapelidun Larra geratu zela.

Argazkian, kopa banatzaileak.



UDALA

BUTROE-N LURPEKO APARKALEKUA

Butroe Pasealekuaren azpian aparkaleku bat egiteko asmoa du Udalak eta ekainaren 14eko Plenoan beronen proiektua Narciso Iglesias inzeniadoreari enkargatzea erabaki zuen. Aparkalekua pribatua izango da eta oraindik ez da erabaki zenbat aparkagune izango dituen. Sarrera, Velezarren Markesaren kalean izango omen du eta irteera hondartzaren parkinarekin inguruan.

POLIDEPORTIBOAREN PROIEKTUA

Polideportiboa futbol zelairekin ondoan egiteko asmoa dago. Aipatutako Plenoan EAK, EEK, EAJK eta PSE-PSOEK proiektuaren alde eman zuten botua. HBK, berriz, bera ere polideportiboa egitearen alde dagoela garbi utzi ondoren, estentzioa egin zuen, proiektuari dagokion azterketa ekonomikorik ez zela aurkeztu eta. Izan ere, polideportiboak ekarriko duen gastua asfaltu honetan Udalak izan duen handienetakoa izango bait da. Lau urte iraungo omen duen obra hau 427 milioitakoa kalkulatu da, eta obrak gainera ondoko mantenimenduak eskatuko duena ere ez da txantxetakoia izango. Dena den, Plenoak anaritu zuena proiektu tekniko hutsa izan zen, obra egiteko inolako konpromisurik gabe. Hori, hala ere, gero etorriko da, polideportiboa egiteko erabaki politikoa lehen-dik hartua bait dago. Proiektuaren onarpena urtebeteko atzerapena dakar, eta behar-beharrezkoa da Diputazioak bere subentzioak emango baldin baditu. Diputazioak ehuneko 55a emango duela espero da eta gainerakoa Udalak ordaindu beharko du. Diputazioak subentzioa onartzeko zain omen daude udalideak ekonomiazko planteamentu zehatzari ekiteko.

KULTURA ETA GAZTERIAREN KONTSEILUEN ARAUDIAK

Pleno berean Kultura Kontseilua eta Gazteriaren Kontseiluaren araudi berriak onartu ziren. Kontseilu biok lanean hasiak ditugu dagoeneko eta prest daukate uda honetarako egitarauak ere.

"HERRI URRATS" EGUNEKO GERTAKARIAK

"Herri Urrats" eguna zela eta muga inguruan poliziak izan zuen jokabide gogorra gaiztetsi zuen Udal Plenoak, besteak beste, Gobernadorearen dimisioa eta kargua bera ere behin betiko kentzea eskatzen zuelarik.

ZUGARRAMURDIREN GOSE GREBA

14ko Plenoaren hasieran eten bat izan zen eta Federico Lopez Zugarramurdi sendagileak Udaletxean bertan gose grebati



ekiteko asmoa agertu zuen. Greba horren bidez Osakidetza Jose Manuel Freire-ekin Lehenbailehen egotea eta medizina orokorreko plazaren arazotari erantzun bat ematea eskatzen zuen. Asteartean greban hasi eta hurrengo ostiralean Hondarribiko batzorde bat hartu zuen Gasteizen Bornaetxea jaunak. Honek adierazi zenez Osakidetza plaza hori uztailaren konkurso-oposizio librean ateratzeko asmoa du. Ostiral horretako arratsaldean utzi zuen gose greba Zugarramurdi.

HAURRENTZAKO UDALEKUA ETA IKASTAROA

Aurreko urteetan bezala udaleku ireki bat eratu du Udalak uztailerako eta bertako jardunak Haizehots taldeak antolatzen ditu. Euskaraz da eta hizkuntz eredu guztietako haurrentzat dago irekia eta moldatua.

Beste aldetik, eta uztailaren ere, Euskara Kontseiluak euskarako ikastaro bat antolatu du eskola aurreko eta O.H.O.-ko haurrentzat. Ikastaroa, kurtsioan zehar zailtasunak eduki edota oporretako erdal giroan bizi direla eta, atzeratutakoak dabilzan haurrentzat da batez ere. Irakasle frogetara 16 lagun aurkeztu ziren eta horietako 6 aukeratu dira eskola emateko. Haurrak, berriz, 130 bat apuntatu dira. Udalak lehenengo aldiz antolatu du aurtien honelakoa eta esperientzia jakinaria izango da, datoren urteetarako batez ere.

SAN MARKOS PARKEA

San Juan egunez San Markos parkea inauguratu zuen Udalak. Leku hau, zenbait urtez itxia eta utzia egon ondoren, garbitua eta txukunduta, herriarentzat ireki da.

Lanak hiru alditan burutu dira. Sasiak eta zuhaitz iharrak kentzeko lehen garbiketa langabetuek egin zuten. Bigarren aldia, parkearen urbanizazioa (bide ertzak, urak, argiak, e.a.), enpresa batek hartu zuen bere gain. Azkenik, lanik ikusgarriena (erretia, landatzea, kimatzea, e.a.), Irungo okupazio lantegietan jardinerian ari diren gazteek egin berri dute. Lanak, noski, ez dira oraindik erabat bukatu.

Atsedan toki izateaz gain parke honek badu baliu didaktikoa ere botanikaren aldetik, zuhaitz bakoitzaren ondoan plakatxo zuri batek zuhaitzaren izena, euskaraz eta latinezko zientifikoa, adierazten bait du.

J. A. Letamendia



San Markos parkean arraiak botatzen